



Universidad del País Vasco  
Euskal Herriko Unibertsitatea  
ERREKTOREGOA - RECTORADO

Unibertsitatearen Oinarrizko Erakundeak  
Unibertsitatearen Oinarrizko Erakundeak  
Unibertsitatearen Oinarrizko Erakundeak

22 de diciembre de 1998



ERABAKIA, 1998ko ABENDUAREN 22koa, GOBERNU BATZARRARENA, UPV/EHUKO IKASKETEN ORDUTEGIAK EGITEKO ERABAKIEN DIREN IRIZPIDEAK ONARTZEKO DENA (1999/2000 IKASTURTEA)

UPV/EHU irakasten diren irakasgai guztien ordutegi egituratuak ikasurtearen hasierarako eginda izatea garrantzitsua da, irakaskuntza teorikoko taldeenak zein praktiketako taldeenak. Eta horren garrantzia bi alderdi hauetan datza nagusiki: batetik, automatikula egiteko unean izan behar dituzte ikasleek irakasgaien ordutegiak; eta, bestetik, onarturako ordutegien bidez egiaztatuko dira irakasleen eta sailen betebeharrak, ikasurte bakoitzeko irakats-eskaintzari onespena eman baino lehenago.

Hori dela eta, automatikularen prozesuan eta irakats-eskaintzaren onespenean aurrera egiteko, lehen aipaturiko ordutegiak sartu behar dituzte sistema informatikoa ikastegiak, zehaztasun eta fidagarritasun handienaz. Hau da, ikastegi bakoitzaren irakats-eskaintzan azaltzen diren talde guztiek izango duten ordutegia (bai teoriakoak bai praktiketakoak).

Beharrezko gertatzen da, beraz, irizpide nagusi batzuk ezartzea. Aldi berean malguak izango diren irizpide horietan oinarrituta, UPV/EHUKO sistema informatiko orokorrak onartu eta prozesatuak dituen ordutegiak egin ahal izango dituzte ikastegiak.

Edozein arauk ona izateko malgua izan behar duen arren, oraingo kasuan bereziki beharrezko egiten da ezaugarri hori. Testu honetan jasotako arauen malgutasuna lortu nahi diren helburuen ondorioa da: ikastegiak aukera ezberdinak izan behar dituztela ikasketen ordutegiak planifikatzerakoan eta, gainera, irakats-saio teoriko eta praktikoa eta irakasgaien kreditu-kopurua zerbait konkretu bihurtzeko lana erraztu egin behar zaiela, bai eta ikasketa-planak Gobernu Batzarraren 1998ko apirilaren 30eko eta 1998ko maiatzaren 18ko erabakietan jasotako aldaketetara egokitzekoa ere.

Kontuan hartuta orain arte emandako arrazoiak, eta Ikasketa Plangintzako Errektoreordetzak eta Irakasleen Errektoreordetzak hala proposatuta, Gobernu Batzarrak ondokoa

#### ERABAKITZEN DU

- UPV/EHU irakasten diren irakasgai guztien ordutegiak egin eta grabatu behar dira sistema informatikoa, irakaskuntza teorikoko taldeenak zein praktiketako taldeenak. Salbuespen bakarrak hauek dira:
  - Kanpoko praktiketako taldeak (Itsasuntziraketa irakasgaietako praktikak barne)
  - Praktika klinikoetako taldeak
  - Ikasgelan burutzen ez diren Practicum irakasgaietako taldeak
  - Medikuntzako lizentziaturari dagozkion praktiketako taldeak
  - Gidaritzapeko praktiketako taldeak
  - Egonaldietako taldeak (egonaldiak erakundeetan, enpresetan,...)
  - Karrera-amaierako proiektuetako taldeak

2. Irakaskuntza teorikoko zein praktiketako taldeen ordutegietan gutxienez eman beharreko datuei esker, informazio hau lortuko dute ikasleek:

- taldearen irakats-saioak nola banatuko diren astean zehar (egunak eta orduak).
- taldearen irakats-saioak zenbat astetara luzatuko diren, eta noiz amaituko diren.
- eskolaldiaren lehen astean hasiko ez diren praktiketako taldeen kasuan, zein egunetan hasiko diren.

3. Ordutegien argitalpenari begira, nahiago duten moduan egituratuko dituzte ikastegiak ordutegiok: maila bakoitzeko taldeen arabera, maila osoen arabera, ikasketen arabera... Baina ikasleek arazorik gabe identifikatu behar dituzte taldeak, jarriko zaien kodea Prozedura Bateratuko arauari jarraiki esleitu nahiz ikastegiaren kodifikazioari jarraiki esleitu.

4. Arau hauek hartu beharko dira kontuan ordutegiak egiterakoan:

- 4.1. Ikastegiak ikasurte bakoitzeko ordutegiak egin baino lehenago, ikasurteko egutegi orokorra onartu beharko du UPV/EHUKo Gobernu Batzarrak, Akademi Antolakuntzako Errektoreordetzak egingo dion proposamena kontuan hartuta. Egutegi horretan, besteak beste, ikasurtea osatzen duten bi eskolaldiak mugatzen dituzten datuak adierazi beharko dira:

Ikasurteko 1. eskolaldia:

- \* Ikasurtearen hasiera-eguna (ikasurteko 1. eskolaldia hastekoa)
- \* Gabonetako oporren hasiera-eguna (ikasurteko 1. eskolaldia etetekoa)
- \* Gabonetako oporren osteko eskolak hasteko eguna (ikasurteko 1. eskolaldia berriro hastekoa)
- \* Lehen lauhilabetearen amaiera-eguna (ikasurteko 1. eskolaldia bukatzekoa)

Ikasurteko 2. eskolaldia:

- \* Bigarren lauhilabetearen hasiera-eguna (ikasurteko 2. eskolaldia hastekoa)
- \* Udaberriko oporren hasiera-eguna (ikasurteko 2. eskolaldia etetekoa)
- \* Udaberriko oporren osteko eskolak hasteko eguna (ikasurteko 2. eskolaldia berriro hastekoa)
- \* Bigarren lauhilabetearen amaiera-eguna (ikasurteko 2. eskolaldia bukatzekoa)

4.2. Ikasurteko egutegi orokorrak ezarritako eskolaldietara egokitu beharko dituzte ikastegiak, nahitaez, ikasketen ordutegiak. Lauhilabeteko irakasgaien ordutegiak kasuan kasuko eskolaldira doitu beharko dira; urte osoko irakasgaienak, berriz, bi eskolaldietako asteetan zehar egokituko dira.

4.3. Irakasgaien iraupena zenbat astetara luzatuko den erabakitzerakoan, nolabaiteko malgutasuna izango dute ikastegiak baina, edonola ere, irakasgaien kredituak errespetatu beharko dituzte ahalik eta gehien (hala eskola teoriko praktikotetan):



- Gabonetako eta Udaberriko oporren osteko eskolak hasteko egunean.
- Era beran, egun hauetan eman ahal izango zaie bukaera tarteei:
- Egutegi akademikoko edozein eskola-aste osoren amaiera-egunean.
  - Lauhilabete bakoitzaren amaiera-egunean.
  - Gabonetako eta Udaberriko oporren aurreko eskolak bukatzeko egunean.

(Adibidea: 26 asteo iraupena izango duen urte osoko ordutegia bost tartetan bana daiteke: T1, ikasturtearen hasiera egunetik azaroko hirugarren asteo ostiralera arte; T2, azaroko laugarren asteo astelehenerik Gabonetako oporren aurreko egunera arte; T3, Gabonetako oporren osteko eskolak hasteko egunetik urtarrileko bigarren asteo ostiralera arte; T4, urtarrileko hirugarren asteo astelehenerik martxo lehen astera arte; eta T5, martxo bigarren asteo astelehenerik irakaskuntzaren 26 asteak beteko dituen asteo ostiralera arte).

- 4.6 Praktiketako taldeen eskola-orduak ez dira eman beharko jarraian astero. Horrela gertaniko balitz, eskolak emateko astearen eta eskolarik gabeko astearen (edo asteen) arteko aldizkakotasuna eskolaldi osoan zehar errepikatu beharko litzateke (adibideak: a) eskolak hamabostero (aste batean bai eta hurrengoan ez); b) eskolak lau astero: aste batean bai eta hiru hurrengoetan ez; c) eskolak zortzi astero: aste batean bai eta hurrengo zazpitan ez).
- 4.7 Ordu ediren anizkoitzak izango diren irakats-saioak erabiliko dira ordutegiak egiterakoan. Ordu erdi iraungo dutenak ez dira onartuko. Teoriako zain praktiketako irakats-saioen iraupena ezartzerakoan aplikatu beharko da arau hau.
5. Teoria eta praktika emateko eskola-orduak bereizi gabe izango dituzten taldeak sortu ahal izango dituzte ikastegiek. Kasu hauetan, irakasleek erabakiko dute nola banatu denbora teoriako eta praktiketako eskolen artean. Irakaskuntza bateratuko talde hauek bereziki ballagarriak izango dira praktikak ikasgela-mota berean (eta batzuetan ikasgelan bertan) egin behar dituzten taldeen kasuan. Arautegi honi dagokionez, teoriako taldeek bete beharreko irizpideak aplikatuko zaizkie.
6. Irakasgairen baten eskolak dagokion eskolaldia amaitu baino aste bat lehenago bukatu arren, ezingo dira egin azterketak horretarako ezarrita dagoen epe ofizialetik kanpo.

Leioa, 1998ko abenduaren 22a

ERREKTOREA

Pello Salaburu Etxeberria



IDAZKARI NAGUSIA

M<sup>o</sup> Soledad Esteban Galarza

